

## Balioetan oinarritutako ekonomia bat bide egiten ari da Nafarroan

*Langileek eta boluntarioek maila handiko identifikazioa adierazten dute ekonomia solidarioa lantzen duten enpresen helburuekin; izan ere, horietatik gehienek uste dute egiten duten lanak "laguntzen duela enpresak/entitateak dituen helburu sozialak betetzen".*

Enpresa batzuetan, "lankidetzaz aipatzen da lehiakortasuna baino gehiago", arduraren handikoa lanpostuak banatzean "aukera berdina ematen zaizkie gizoni zein emakumeei", eta "hizkuntza ez sexista erabiltzen da dokumentuetan eta kanpo komunikazioetan". Horrela adierazten dute, gehiengo handiz, Reas Nafarroako kide diren eta ekonomia solidarioa lantzen duten 14 enpresetan lan egiten eta laguntzen duten pertsonak; enpresa horiek beren Auditoria Soziala bete dute berriz ere 2014an.

Auditoria Sozialaren prozesua urtero egiten dute "balioetan" oinarritutako enpresek, eta horren bidez, Ekonomia Solidarioaren Printzipioak betetzen ote dituzten neurtzen da, horretarako konpromisoa hartu baituzten. Enpresen jokaeraren nondik norakoak ezagutzeko aukera ematen du auditoria horrek, besteak beste, aukera-berdintasunaren aldeko apustua egiten duten, pertsona langileen parte-hartzea bultzatzen duten, lan-baldintza duinak ziurtatzen dituzten, beren jarduerak ingurumenean duen eragina arintzeko neurriak hartzen dituzten, ingurunearekin lankidetzan aritzen diren, iraunkortasunaren eta independentzia finantzarioaren aldeko neurriak hartzen dituzten, etekinak ekonomia solidarioa sustatzen duten ekimenetan berrinbertitzen dituzten, edota ingurunearekiko konpromisoa hartzen duten, eta nola<sup>1</sup>.

Edizio honetan,  
lehenbiziko aldiz ematen  
dira ezagutzera  
Auditoria Soziala  
gainditzen duten  
enpresen 20 adierazle  
(10 kualitatibo eta 10  
kuantitatibo).

Aurten, txostenak inkesta bateko datuak ere biltzen ditu; 229 langilek eta boluntariok erantzun diote horri, eta, horri esker, haiek printzipioen betetze-mailari buruz duten pertzepzioa ezagut daiteke, baita datuek adierazten dutenarekin alderatu ere.

### ZENBAIT DATU ESANGURATSU, PRINTZPIOZ PRINTZPIO

**ENPLEGUA.** Lehenbiziko aldiz krisiaren hasieratik, lanpostu kopurua ez da handitu ekonomia solidarioa lantzen duten enpresetan.

Boluntarioek motor garrantzitsua izaten jarraitzen dute. Gora doaz. 2013an, 2.335 izan dira. 8 boluntario ordainsaria duen lanpostu bakoitzeko.

Auditorian aztertutako 14 enpresek 367 pertsona daukate kontratatuta, %48 lanaldi osoan eta %46 kontratu mugagabeekin.

Ohikoa denez, emakumeak nagusitzen dira sektore horretan. Langileen %65 emakumeak dira (iaz baino gehiago). Sei entitatetan, emakumeek hartutako postuak %80 baino gehiago dira.

**LANA.** Entitateen %50ek lortu dute soldatak berdintzea, langile guztiek ordainsari berdina baitute. Soldata handien eta txikiaren arteko aldeak murriztu egin dira aurreko urteetakoekin alderatuta, eta %52,30ekoa da orain. Enpresen %86k erakusten dituzte modu publikoan soldaten eta bestelako ordainsarien gaineko datuak.

<sup>1</sup> Ekitate-printzipioak, lana, Ingurumen iraunkortasuna, lankidetzaz, irabazi-asmorik gabe, ingurunearekiko konpromisoa.

Entitateen %77k langileen prestakuntza bultzatzeko neurriak hartzen ditu. Azken urtean, prestakuntza arloko orduak 7.494 izan ziren, eta horrek esan nahi du batez beste 441 ordu izan zirela entitate bakoitzeko, eta 49 langile bakoitzeko. Horietatik, 109 ingurumenari lotutako kudeaketan landu ziren.

**INGURUMEN ARLOKO IRAUNKORTASUNA.** Entitateek 2013an aireratutako CO<sup>2</sup> kopurua antzekoa da aurreko urteetakoaren aldean, batez beste 28.000 izan baitziren, entitateko. Puntu horretan, ibili beharreko bidea dago aurretik aireratzten den CO<sup>2</sup> kopurua murriztu eta ingurumen-kalitateko ziurtagiria lortzeari begira; oraingoz, entitateen %14k besterik ez du lortu.

**LANKIDETZA.** %93k webgune eguneratua dute, %78k kontu aktiboak dituzte sare sozialetan, eta %78k jardueren memoria argitaratu dute azken urtean; halere, publizitate, propaganda eta harreman publikoetan izandako gastua gastu guztiaren %0,95 baizik ez da. Horregatik, inkestari erantzun dioten pertsonen portzentaje handi batek dio bere jarduera oso gutxi ezagutzen dela enpresatik kanpo.


Irabazi-asmorik gabeko entitateei eta Merkatu Sozialekoei egindako erosketak gastu guztiaren %16,44 da.

Irabazi-asmorik gabeko entitateei ondasunak eta zerbitzuak erosteagatik sortutako gastua gero eta handiagoa da urtez urte. Irabazi-asmorik gabeko entitateei egindako erosketen zenbatekoa, Merkatu Sozialaren barnean egindakoei erantsita, 411.676 eurokoa da.

**IRABAZI ASMORIK GABE.** Diru-sarrerak eta gastuak jaitsi dira, milioi bat euro, hor nonbait. Ekoizpen-jardueragatik izandako diru-sarrek beren horretan jarraitzen dute, eta diru-sarrera guztien %43 dira. Gainera, gero eta mendekotasun txikiagoa dute diru-laguntza publikoekiko; izan ere, horiek diru-sarreen %46,46 ziren 2012an, eta %35,83 izan dira 2013an.

**KONPROMISOA INGURUNEAREKIN.** Auditorian aztertutako entitate guztiek modu aktiboan parte hartzen dute gizartea eraldatzeko sare eta ekimenetan; batez beste, 3,3 sare dituzte entitate bakoitzak, eta, guztira, 26.059 euro bideratu dira haietara.

Azkenik, nabarmendu behar da finantza etiko eta solidarioekin dagoen konpromiso sendoa. Entitateen %64 kide edo bezero dira finantza etiko eta solidarioen ekimenetako batean.



Ekonomia Solidarioaren printzipioen betetze-mailaren balorazioa, 229 laguntzaile, boluntario eta langileri egindako inkestaren bidez egina.